

MAIZ EGINDAKO GALDERAK

- Nola bete behar ditut, eta nora bidali behar, tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko galdetegia eta sinatutako adierazpen-dokumentua?

Galdetegia eta adierazpen-dokumentua Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren [Izena emateko orria - Euskara - EHU](#) web orrian daude. Osatu hango galdetegia, eta "Bidali" botoia sakatu aurretik, erantsi betetako eta sinatutako adierazpen-dokumentua.

- Tesia euskaraz egiten ari naiz, eta gordailuan utziko dut datozen hilabeteetan. «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko bidea hasi behar al dut, eskaera eginez?

2025-2026 ikasturtea amaitu aurretik (2026ko iraila baino lehen) gordailuan utziko dituzten doktoregaiak bi aukera izango dituzte:

- Orain arteko araudia betetzea. (ESTEKA)
- Araudi berriak eskatzen dituen baldintzak betez gero, «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzea.

2026-2027 ikasturtetik aurrera araudi berriari jarraitu beharko diote euskarazko doktorego-tesi guztiek.

- Noiz egin behar dut «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko eskaera, tesia dagoeneko urte batez edo gehiagotan matrikulatu badut? Orain egin behar dut, datorren ikasturteko matrikulan edota tesia gordailuan uzterakoan?

Oraintxe egin dezakezu «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko eskaera edo, bestela, matrikula berria egiten duzunean. Edozein modutan, nahitaezkoa da uneren batean "Tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko dokumentua" Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzara helaraztea, nahitaezkoa den urteko jarraipena egin ahal izateko.

- «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko prozedurari jarraitu behar al diot Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Doktorego Programan banago?

Bai, doktoregai guztiok jarraitu behar diozue «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko prozedurari, edozein dela ere doktorego-programa. Eskatu ezean, ezingo zaizue gaineratu aipamena doktore-titularen atzealdean.

- Araudiaren arabera, «Nazioarteko Tesia» aipamena ere lotu nahi den kasuetan zein ehunekotan izan behar du euskaraz idatzia eta zein ehuneko hartu beharko du defentsan euskarazko ahozko jardunak?.

«Euskarazko Doktoregoa» aipamena eskuratzeko, dokumentu idatziaren % 100 izan beharko da euskaraz. Horrez gain, euskarazkoa ez ezik «Nazioarteko Doktoregoa» aipamena ere lortzekoa denean, arautegian eskatzen den zatia beste hizkuntza batean ere idatzi beharko da.

«Euskarazko Doktoregoa» aipamena bakarrik lortu nahi bada, ahozko defentsaren % 100 egin behar da euskaraz. Euskarazkoa ez ezik «Nazioarteko Doktoregoa» aipamena ere nahi baldin bada, nazioarteko hizkuntzan beharrezkoa den gutxieneko ahozko jarduna bete beharko da defentsan, eta gainontzekoa euskaraz egin beharko da. Epaimahaiaren osaeraren arabera izan daiteke, baina zati esangarria egin behar da euskaraz.

- Tesia artikuluen bilduma bidez osatuta baldin badago, euskarazkoak izan behar al dute artikuluek?

Bai, artikulua bidez osatutako tesiek % 100 euskaraz egon behar dute. Lehenago beste hizkuntza batean argitaratzen badira, argitaratu ahala euskaratzen hasia da bidea.

- Zertan datza «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko nahitaezko txostena tramitatzearena? Zertan oinarrituko da aldeko edo aurkako txostena?

«Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko bidea abiatu duenari urteroko jarraipena egingo zaio. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak izendatutako epaimahai batek egingo du jarraipena, eta hark doktoregaiak aurkeztutako ebidentziak aztertuko ditu ([ikus Baldintzak, eskabideak eta jarraipen-prozesua - Euskara - EHU](#)). Era horretan, epaimahaiak egiaztatuko du alde batetik, doktoregia tesia euskaraz egiten ari dela eta, bestetik, euskara akademiko idatzian eta ahozkoan gutxieneko gaitasunak dituela. Epaimahaiak txosten bat helaraziko dio doktoregaiari jarraipen-saio bakoitzaren ondoren.

Tesia gordailuan utzi duten eta «Euskarazko Doktoregoa» aipamena eskatu duten doktoregaien eskaerak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari helaraziko zaizkio, eta jarraipenari buruzko informazioa datu-base batean bilduta egongo denez, Errektoreordetzak aldeko txostena egingo du, baldintzak betetzen duten doktoregaien kasuan.

- Nola izango dut doktoregai gisa bete beharreko jarraipen-saioen berri?

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza zurekin harremanetan jarriko da ikasturtero, asti nahikoz, ebidentziak aurkezteko prozesuak eta jarraipen-saioak antolatzeko.

- Epaimahaiak aztertuko dituen bost ebidentzia mota jasotzen ditu web orriak. Guztiak bete behar al ditut?

Ez, ez dira ezinbestekoak, nahiz eta epaimahaiak bost ebidentzia motak gogoan hartuko dituen jarraipen-txostenak prestatzerakoan. Epaimahaiak orotara ebaluatuko du aurkeztutako ebidentzia nahikoa izan den edo ez. Hutsuneren bat detektatuz gero, hori osatzeko gomendioak ere emango dizkizu.

- Tesi-zuzendarien euskara maila da jarraipenerako ebidentzietako bat. Arazoa izango al da, bi tesi zuzendari edukita, batek euskaraz ez badaki? Eta bakarra edukita ere, eska al dezaket aipamena hark euskaraz ez badaki?

Euskaraz ez dakiten zuzendariak ez dira arazo administratiboa izango; Zuzendarien euskara-maila jarraipenerako ebidentzietako bat da, ez besterik. Zuzendaria euskara maila ona izatea lagungarri zaio doktoregairi, eta euskararen aldetik babesa ere ematen dio. Zuzendarietako bat ere ez denean euskalduna, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak hizkuntza-laguntza indartuko dio doktoregaiari, berak hala eskatzen badu.

- Nola jakingo dut zer hizkuntza-prestakuntza eskaini zaigun doktoregaiari?

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak eta Doktorego Eskolak ikasturtero zabalduko dute berezko hizkuntza-prestakuntzan izena emateko deialdia. Bestela ere, informazioa honako web orrian izango da ikusgai: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hizkuntza-prestakuntza/doktoregaien-hizkuntza-prestakuntza>.

- Zein hizkuntza-prestakuntza hartuko du gogoan epaimahaiak? Balio al du Errektoreordetzak eskainitako ikastaroetatik kanpoko hizkuntza-prestakuntzak?

Kontuan hartuko dira euskara akademikoari buruz jasotako prestakuntza guztiak, besteak beste, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak eskaintzen duena, baina ez bakarrik. Ildo beretik, ez da beharrezkoa izango doktoregaiak ikastaro guztietan izena ematea, baina litekeena da epaimahaiak ikastaroren bat doktoregaiari egiteaegin dezan gomendatzea, jarraipen-prozesuan horren beharra ikusiz gero.

- Euskarazko C2 mailari dagokion akreditazioa lortzen al da «Euskarazko Doktoregoa» aipamenarekin bat?

Bai, «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzen duten doktoregai guztiei ofizioz tramitatuko zaie euskarazko C2 maila egiaztatzetik salbuesten duen ziurtagiria.